

BILBOKO ALKATEAK GAZTEEKIN PARTEKATU DITU URIAREN ETORKIZUNEN PROIEKTUAK DEFINITZEKO IDEIAK ETA PROPOSAMENAK

- Saio honek amaiera ematen dio Udalak urtarrilean hasitako parte-hartze prozesuari, zeinaren asmoa baitzen Udalak gazteentzat dituen programen egokitasuna egiaztatzea, gazteek eurek agertzen dituzten beharrizanekin eta itxaropenekin alderatuta.
 - Topaketa telematiko batzuen bidez, 15 eta 30 urte bitarteko 40 parte hartzaile baino gehiagok zenbait alor landuko dituzte: gazte emantzipatuak – ekintzailtza, prestakuntza bizitzan zehar, etxebizitza, edo familiako bizitzaren eta lanaren kontziliazioa–, gazte aktiboak –kultura, aisia eta kirola–, eta gazte konprometituak –boluntarioritza, ingurumena edo feminismoa–.
 - Parte-hartze prozesu osoaren emaitzak “*Bilbo, Hiri Gaztea*” 2021-2023 estrategia eratuko du. Estrategia honen helburu nagusia da Bilbo uri erakargarria izan dadila gazteentzat, eta bertan euren bizitza-proiektua garatu ahal izatea.

(*Bilbo, 2021eko martxoaren 2a*).- Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, gaur arratsaldean, lan-saio batean parte hartu du Uriko gazteekin batera, uriaren etorkizuneko planak eta proiektuak definitzeari begira haiek dituzten itxaropen eta beharrizanak entzun, jakitun egon eta erantzutearren.

Gaurkoa izan da azkenengo topaketa Udalak berak iragan urtarrilean hasitako parte-hartze prozesu batean, eta 15 eta 30 urte bitarteko 40 gaztek parte hartu dute, eta 3 arlo eta 10 gai aztertu: **gazteria emantzipatua** – ekintzailtza, bizitza osoan zeharko formazioa, etxebizitza edota lana eta familiako bizitza uztartzea–, **gazteria aktiboa** – aisialdia eta kirola–, eta **gazteria konprometitua** –boluntarioritza, ingurumena eta feminismoa–. Prozesu honek Europar Batasuneko Erasmus + programaren konfinazioa du.

Parte-hartze prozesu osoaren emaitzak “*Bilbo, Hiri Gaztea 2021-2023*” gazteentzako udal-estrategia eratuko du. Estrategia hau lehentasunezko eginkizuna da Udalaren agintaldi-planaren barruan. Helburu nagusia da *Bilbo hiri erakargarria izan dadila gazteentzat, eta bertan euren bizitza-proiektua garatu ahal izatea (prestakuntza, lanerako eta/edo ekintzailtzarako aukerak, etxebizitza eta aisia)*”. Aburto parte hartzaileei zuzendu zaie honako hau nabarmentzeko: “*helburu zeharkako handi bat da, eta ezin dugu lortu zuei bizkarra emanda. Ezin ditugu gure planak edo proiektuak eratu zuei entzun barik, zuen beharrizanak eta itxaropenak kontuan hartu barik; zuen ideiak eta proposamenak aintzat hartu barik*”.

Azkenik, Aburto alkateak konpromisoa hartu du gazteei aktiboki entzuteko eta haien parte hartzerako espazioak eta prozesuak antolatzeke geroan ere.

HASIERAKO ONDORIOAK

Gaur arratsaldeko saioa aurrez aurrekoa izan da aldeaz, eta telematikoa aldeaz; gazte gehienek online parte hartu dute, eta, beste 9 gaztek, gai bakoitzeko eta adin-tarte bakoitzeko batek (15 eta 18 urte bitartekoak; 19 eta 25 urte bitartekoak; eta 26 eta 30 urte bitartekoak izan dira adin-tarteak), urtarrilaz geroztik egiten ari diren saioetan ideia nabarmenenak aurrez aurre azaldu dituzte.

Lehen ondorio horien arabera, gazteek beren bizitzak garatzeko leku gisa oso ondo balioesten dute Bilbo. Berdintasuna eta jasangarritasuna dira hobekien baloratutako esparruak 3 adin-taldeetan, eta etxebizitza da hobekuntza-tarte handiena duena, batez ere 19 urtetik 30 urtera bitarteko gazteen artean.

15 eta 18 urte bitarteko adin-tarte gazteenean, nabarmentzekoa da aire zabalean eta euritik babestuta elkartzeko espazioak prestatu eta mantendu behar direla, kirola egin ahal izateko eremuak, hala nola bidegorriak, pilotalekuak edo kantxak. Azkenik, hausnarketarako guneak ere eskatu dituzte, hezkuntza formalaren edukiaren barruan.

Emantzipazioak, hiriaren ongizateak eta ingurumenaren jasangarritasunak kezkatzen ditu 19 eta 25 urte bitarteko gazteak. Kirola eskatzen dute elkartzeko eta gozatzeko leku gisa. Arte eszenikoei dagokienez, espazio publikoa malgutu eta agertoki artistiko bihurtzearen aldekoak dira, baita artista gazteen lana ikusgai jartzearen aldekoak ere. Proiektu profesionalak abiarazteko eta berritzeko espazioak izateko beharra nabarmendu dute.

26 eta 30 urte bitartekoen artean, enplegua eta etxebizitza eskuragarriagoak eta jasangarriagoak izatea eskatu dute. Hiria eraldatzearen alde egin dute, non oinezkoek, bizikletek eta berdeguneek espazioak irabaziko dituzten eta auzoetan alderdi komunitarioak bultzatuko diren.

Aurrerantzean, Udalak gazteentzat izango duen estrategia lantzeko eginkizuna fase berri batean sartuko da: emaitzak analizatzea eta **“Bilbo, Hiri Gaztea 2021-2023”** izeneko atzenengo dokumentua idazteko balorazioak egitea; dokumentu hori datozen hilabeteetan aurkeztuko da, eta Udalak gazteei buruz izango duen jarduna gidatuko du agintaldia amaitu artean.

EL ALCALDE DE BILBAO COMPARTE CON JÓVENES DE LA VILLA IDEAS Y PROPUESTAS PARA DEFINIR LOS PROYECTOS FUTUROS DE LA CIUDAD

- Esta sesión pone fin al proceso participativo iniciado por el Ayuntamiento en el mes de enero con el objetivo de contrastar la idoneidad de los programas municipales en el ámbito juvenil con las necesidades y expectativas de las propias personas jóvenes.
- Durante varios encuentros telemáticos, más de 40 participantes, de 15 a 30 años, han abordado diferentes ámbitos: juventud emancipada - emprendizaje, formación a lo largo de la vida, la vivienda o la conciliación familiar y laboral-, juventud activa -cultura, el ocio y el deporte- y juventud comprometida -voluntariado, medio ambiente o feminismo-.
- Según las conclusiones iniciales de las primeras sesiones las y los jóvenes dan a Bilbao un notable como ciudad para vivir.
- El resultado de este proceso participativo formará parte de la estrategia “**Bilbao Hiri Gaztea 2021-2023**”, que tiene como objetivo principal convertir la Villa en una ciudad atractiva para la juventud, donde puedan desarrollar su proyecto de vida.

(Bilbao, 2 de marzo de 2021).- El Alcalde de Bilbao **Juan Mari Aburto** ha participado esta tarde en una sesión de trabajo con jóvenes de la Villa, con el objetivo de escuchar, compartir y dar respuesta a sus expectativas y necesidades en la definición de los planes y proyectos futuros de la ciudad.

El de hoy ha sido el último encuentro de un proceso participativo iniciado, el pasado mes de enero, por el Consistorio, en el que más de 40 jóvenes de 15 a 30 años han abordado 3 ámbitos de actuación y 10 temáticas diferentes: **juventud emancipada** -emprendizaje, formación a lo largo de la vida, la vivienda o la conciliación familiar y laboral- **juventud activa** -ocio y deporte-, **juventud comprometida** -voluntariado, medio ambiente o feminismo-. Este proceso cuenta con la cofinanciación del Programa Erasmus + de la Unión Europea.

El resultado de este proceso formará parte de la estrategia municipal de juventud “**Bilbao Hiri Gaztea 2021-2023**”, una actuación prioritaria dentro del Plan de Mandato municipal, que, tal y como ha subrayado el Alcalde Aburto, tiene como objetivo principal “*convertir la Villa en una ciudad atractiva para las y los jóvenes, donde puedan desarrollar su proyecto de vida, incluyendo su formación, las oportunidades laborales y/o de emprendimiento, vivienda y ocio*”. Aburto se ha dirigido a las y los participantes para subrayar que “*este gran objetivo transversal no lo podemos conseguir de espaldas a vosotros y vosotras. No podemos articular nuestros planes o proyectos sin escucharos, sin tener en cuenta vuestras necesidades y vuestras expectativas; sin contar con vuestras ideas y propuestas*”.

Finalmente, el Alcalde Aburto se ha comprometido a seguir articulando espacios y procesos de escucha activa y participación juvenil.

CONCLUSIONES INICIALES

La sesión de esta tarde ha sido semipresencial; mientras la mayor parte de las y los jóvenes la ha seguido de manera online, 9 jóvenes, uno por cada temática y franja de edad de 15 a 18, de 19 a 25 y de 26 a 30, han expuesto presencialmente las ideas más destacadas en las sesiones que se vienen realizando desde el mes de enero.

Según estas primeras conclusiones, **las y los jóvenes valoran con un notable Bilbao como un lugar en el que desarrollar sus vidas**. Igualdad y sostenibilidad son los ámbitos mejor valorados en los 3 grupos de edad, mientras que vivienda es el que mayor margen de mejora tiene, sobre todo entre la juventud a partir de los 19 años y hasta los 30 años.

En la franja de edad más joven de **15 a 18 años** destaca la necesidad de habilitar y mantener **espacios de encuentro al aire libre** y protegidos de la lluvia, zonas en las que poder **practicar deporte** como bidegorris, frontones o canchas. Finalmente, reclaman también **espacios de reflexión** dentro del contenido de educación formal.

A las y los jóvenes de **19 a 25 años** les preocupa su **emancipación, el bienestar de la ciudad y la sostenibilidad medioambiental**. Reclaman el **deporte como lugar de encuentro y disfrute**. Se refieren a las artes escénicas y son partidarios de flexibilizar el **espacio público para convertirlo en escenario artístico**, así como de visibilizar del trabajo de artistas jóvenes. Destacan la necesidad de contar con espacios para **lanzar sus proyectos profesionales y poder innovar**.

Entre los **26 y 30 años** piden que el **empleo y la vivienda sean más accesibles y sostenibles**. Apuestan por una transformación de la ciudad donde el peatón, la bicicleta y los espacios verdes ganen espacios y se impulsen aspectos comunitarios en los barrios.

A partir de ahora, la definición de la estrategia juvenil municipal entra en una nueva fase; la del análisis de los resultados y valoraciones para la redacción del documento final "**Bilbao Hiri Gaztea 2021-2023**", que se presentará en los próximos meses y guiará la actuación municipal en el ámbito juvenil hasta el final del presente mandato.